



ZEURE UDALAK INFORMATZEN
www.laudiokoudala.net
www.ayuntamientodellodio.net

ZUIN



1. hamabostaldia. Ekaina 2012 449 Zk. Ale kopurua: 8.000

Udalak 2012ko auzo asanbladen urteko lehen ziklorako deialdia egin du

Laudioko Udalak Auzo asanbladen sei hilabeteroko deialdia berriz martxan jartzea erabaki du; hori dela eta ekainaren lehenengo hamabostaldirako 2012 urteko lehen deialdia egin du.

Udal aurrekontua da Udalaren kudeaketako erreminta nagusia. Horrexegatik auzokideekin batera aztertu nahi da, erreminta hurbiletik ezagutu, egituratzen dituzten puntuak zeintzuk diren eta bere mugen nondik norakoak ezagutze aldera. Hori dela eta, herritarrek aurrekontuei buruzko informazio zehatza izan dezaten, gai zerrendako puntu nagusia izango da.

Bestalde, 2011ko asanbladak bukatu zirenetik, Udalak bertan planteatutako eta proposatutako iradokizunak lantzen ari da - Beharren mapa deiturikoa. Zenbait proposamen 2012ko aurrekontuetan aintzat hartu izan dira; beste batzuk, ordea, gainontzeko instituzioek eskainitako diru kopurua txikiagoa izanda murriztu edo eta bere horretan geratu behar izan dira, baliabideak zer edo zer murriztu egin baitira. Hurrengo urteetako aurrekontuei begira behar nagusiei egoki lehentasuna ematea izango da, egin behar nabariena. Aurrerantzean, asanblada bakoitzak bere lehentasunak zehatz dezala espero da. Hauxe izango da gai zerrendako bigarren puntua.

Gai zerrenda:

0. Mahaiaren aurkezpena eta asanbladaren dinamika.
1. 2012ko aurrekontuaren aurkezpena.
2. 2011n planteatutako gaien errepasoa eta gai berriak.
3. Etorkizuna begirako lehentasunak.

Asanbladak:

- NEKAZAL USTIAPENERako auzo asanblada (2012ko ekainak 4 astelehena, 18,00etan, Udal hitzaldi aretoa).
- UGARTEko auzo asanblada (2012ko ekainak 5 asteartea, 18,00etan, Ugarteko eliza).
- HERRIGUNeko auzo asanblada (2012ko ekainak 6 asteazkena, 18,00etan, Lamuza parkeko Etxe Nagusia).
- LATIORROko auzo asanblada (2012ko ekainak 7 osteguna, 18,00etan, Latorroko ikastetxea).
- ARRAÑOko auzo asanblada (2012ko ekainak 11 astelehena, 18,00etan, Udal hitzaldi aretoa).
- GARDEAko auzo asanblada (2012ko ekainak 12 asteartea, 18,00etan, Gizarte Etxean).
- ARETako auzo asanblada (2012ko ekainak 13 asteazkena 18,00etan, Kultura Etxean).
- LARRAZABALgo auzo asanblada (2012ko ekainak 14 osteguna, 18,00etan, Gurdigilea Jatetxean).

1go HIRITAR TAILERRAK: PARTEHARTZEA. 2012ko ekainaren 21etik 27rarte

Laudioko Udalaren Ideien Bulegoak, Hiritar Parte-Hartze Araudiko (Batzar akordioa) idazteari laguntzeko asmoz, 2012ko HIRITAR TAILERREN lehenengo zikloa antolatu du. Lan-zikloa ekainaren, 21ean, 25ean eta 27an, 18etan, Lamuza Parkeko Kultura Etxeko "Etxe Nagusian" izango da.

TAILER saio bakoitza bi zatitan banatuko da. Lehenengo parte konferentzia izango da. Konferentzia honen helburua elkarrizketarako argudioak eskaintzea da, ondoko lan-mahaian landuko dena. Zati bakoitza 1½ko iraupena izango du, 15 minutuko atsedenaren zerekin.

Hauexek izango dira saioak:

- Ekainaren 21a:** XXI.ko mendearren gizarte-taetan Zuzeneko Demokrazia.
- Ekainaren 25a:** Hiritar Parte-Hartzearen zerbitzuetara Aplikazio Elektronikoa.
- Ekainaren 27a:** Hiritar Parte-Hartze Araudiak.

Lan-Mahaia egokitasunez antolatu ahal izateko asmoz, ekitaldietan parte hartzeko borondatea duten pertsonen zerbitzu honekin harremanetan jartzea eskertuko genieke, Udaletxeko 3. Solairuan (Beharren Mapa), ekainaren 15eko aurretik, edota hurrengo helbide elektronikoan: beharrenmapa@audiokoudala.net



UDAKO ESKAINTZA MAILA OFIZIALAK · EGA

Uztailen 4 eta 5 orduko ikastaroak
 Irailean 2 eta 3 orduko birpasa ikastaroak
 Udal bekak

Laudioko AEK
 Tfnoa. 94 672 672 2
laudio@aek.org

www.aek.org



EKAINEKO AGENDA

Hilak 3:

- 11:00 Patinen hirugarren ibilbidea Aldaiko plazatik abiatuta

Hilak 3 eta 13:

- Santa Luzia eta San Antonio erromeriak

Hilak 6 eta 16:

- Entzuetari buruzko mintegia

Hilak 6:

- 16:30 Gatazkei buruzko hitzaldia Kultura Etxean

Hilak 9:

- 10:00 Hockey eguna Gardean
- 18:00 txirrindulari elkartearen ez ohiko asanblada

Hilak 14:

- 16:45 Dementziari buruzko hitzaldia Kultura Etxean

Hilak 16:

- 19:00 Klarinete gazteen kontzertua LHUlan
- 19:30 Dantza erakustaldia Euskalduna jau-regian, Bilbon

Hilak 17 de junio:

- 9:00 Afanen txangoa Burgosera
- 11:00 Osasun festa Herriko plazan

IKUS 1. ORRIA:

- Auzo asanbladak
- Herritar parte hartzeari buruzko tailerrak

IKUS 2. ORRIA:

- Udako argazki-lehiaketa
- Multiabentura udalekuak

IKUS 3. ORRIA:

- Euskararekin erlazionatutako zitak
- Drumgorri hitzorduak
- Baisala hitzorduak

IKUS 4. ORRIA:

- Tupper sex tailerra

ETA GOGOAN IZAN...
www.laudiokoudala.net
web gunean are informazio gehiago

Txirrindularitza elkartearen ez ohiko asanblada ekainaren 9an

Laudioar txirrindularitza elkarteak bazkide guztiei dei egiten die ekainaren 9an, zapatua, arratsaldeko 16:00etan bere gizarte aretoan egingo den ez ohiko asanbladan parte har dezaten. Asanblada, bazkide guztiei zuzendaritza baztorde berria aurkezte aldera egingo da.



Martxan jada GAZTE Informazio Gunearen hirugarren udako argazki lehiaketa

Oporretan irtengo zara? Mendiara? Hordartzara? Atzerrira? Argazkizalea zara? Horrela bada, Gazte Informazio Guneak, Udako



3garren Argazki Lehiaketan parte hartzeraz animatzen zaituzte. Kontutan izateko oinarriak:

- **Gaia:** 2012ko Uda
- Parte hartzeko **datak:** ekainaren 15etik irailaren 7ra.
- Lanak aurkezteko **tokia** eta informazio gehiago: bidali email bat infogazte@laudiokoudala.net helbidera edo Audioko Kultura Etxean kokatutako Gazteen Informazio Gunean utzi, astelehen, asteazken edo ostiraletan, goizeko 10:00etatik 13:00etara (abuztuan itxita).
- Adina: 16-30 urte bitartekoak.
- Datuak: Izen-abizenak, adina,

telefonoa, e-maila, eta argazkiaren izenburua.

Hirugarren lehiaketa hontako **sariak** hauek izango dira:

1. Netbook bat
 2. MP4 bat
 3. Pen drive bat
- Irabazleen zerreda irailaren 12an, Gazteen Informazio Gunean eta dagokion Zuinean argitaratuko da. Lehiaketan parte hartzeak, Gazte Informazio Gunean jaso ditzazkezen oinarriak onartzea suposatzen du. Antolatzaileek lehiaketa bertan behera uzteko edo behar diren aldaketak egiteko beta izango du.

Gazteria Zerbitzuak multiabentura udalekuak antolatuko ditu 12-17 urte bitarteko gazteentzat

Arrigorriagako eta Audioko 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzako multiabentura udalekuak antolatuko ditu aurten Gazteria sailak. Parte hartzeko hiru txanda antolatuko dira:

- 12-13 urte bitarteko gazteen-

- tzat ekainaren 25etik 29ra
 - 14-15 urte bitarteko gazteentzatzat uztailaren 2tik 6ra
 - 15-17 urte bitarteko gazteentzatzat uztailaren 9tik 13ra.
- Izen emateko epea ekainaren 1etik 12ra arte zabalik.

Salneurria 85 euro. Informazio gehiagorako eta inskripzioak betetzeko Udala Gazteria zerbitzua: 94 403 48 50 edo educacion@laudiokoudala.net

Arabako federakundeak eta hockey klubek 2012ko Hockey eguna antolatuko dute Gardean ekainaren 9an

Datorren ekainaren 9an 2012ko Hockey Eguna egingo da Gardeako udal Hockey zelaian, Garai bako jokalariek, egungoak, eskola arteko kirola praktikatzen dutenek eta orokorrean hockeyaren familia handia osatzen dutenen

topagune izango da hori. Goizeko 10:00etan hasiko diren ekin-tzen artean, nola ez hockey partidak, musika, haurrentzako jolasak eta parte hartzaileen arteko bazkari bat izango dira, besteak beste. Bertan parte hartzeko asmoa

dutenek edo informazio gehiago behar dutenek jar bitez harremanetan antolatzaileekin hurrengo telefonoan edo helbide elektronikoan 657778239 edo hockeyeguna@arabahockey.org

Udal kanposantuagatiko eta ibilgailuengatiko zergak ordaintzeko epea zabalik

Alkatetzak Audioko Udala Kanposantuko Zerbitzuen Tasaren Kontribuzio Padroia eta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren Kontribuzio Padroia onartu ditu. Ordainketa epea, borondatezko al-dian, 2012ko maiatzaren 16 egunetik 2012ko uztailaren 16 egunera arte, biak barne, izango da. Helbideratuta dauden erreziboak

2012ko ekainaren 18 egunean kobratuko dira. Eta gogoan izan, www.laudiokoudala.net web gunean ere "nire ordainketa" formulak, zuen ordainketak internet bidez egiteko aukera luzatzen dizuela, etxetik mugitu behar gabe. Tasa honen ordainketa helbideratuta ez dutenek, ordaindu ahal izango dute Vi-

tal Kutxa eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan, ohiko ordutegian, etxean jasoko duen Kutxatik bidalitako ordain-agiri bakarra aurkeztuz. Erreziburik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, errezibuaren ale bikoiztua eskatu Herriko Etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan, Herriko Plaza - Behe Ezkerrean.



GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"
LAMUZA 13 KALEA - infogazte@laudiokoudala.net
Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia

Cambio de horario del PIJ: El Punto de Información Juvenil tendrá nuevo horario desde el 25 de junio hasta el 7 de septiembre. Es por ello que, si pensáis acercaros hasta el debéis tener muy presente el siguiente horario de apertura: lunes, miércoles y viernes de 10.00 de la mañana a 13.00 de la tarde.

Ordutegi berria Gazte Informazio Gunean: Gazte Informazio Guneak ordutegi berria izango du ekainaren 25tik irailaren 7ra arte. Hortaz, izan gogoan honako honetan luzatzen dizuegun ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizeko 10.00etatik 13.00etara bitartez, Gazteentzako Informazio Gunea zabalik!

Baisalak bere egun handia antolatuko du hilaren 10ean Granja kiroldegian, dantza emanaldi ugariarekin

Areto dantzen elkarte Baisalak saihesten ezinezko bina hitzordu antolatuko ditu, dantza atsegin duten guztiak aintzat hartze aldera. Hitzorduak honako hauek dira:

Ekainaren 8an 22:30etatik Aurrera eta Kafe Antzokian Country jaia egingo da eta Setgio eta Veronica irakasleak bertan izango dira bakero erritmoak eta musika latina erakutsi eta dantzatzeko asmoz.

Ekainaren 10ean Granja kiroldegian Baisala eguna antolatuko da.

Goizean, 10:00etatik 14:00etara erakustaldian parte hartuko duten dantza taldeen entseguak burutuko dira.



14:30etan, ekainaren 6a baino lehen izena eman duten pertsonak Karrika jatetxean egingo den bazkarian parte hartuko dute.

Arratsaldeko 17:30etatik Aurrera eta Granja ki-



roldegian Dantza emanaldiak egingo dira. 15 dantza taldek euren erakustaldiak erakutsiko dituzte eta sorpresa bat edo beste ere izango dute bertan bildutakoek. Hamaika dantza estilo izango dira (saltsa, jazz, bachatango, ekialdeko dantzak, chachacha, samba, boleroa, valsak, tangoa...). Hitzordua doakoa izango da.

Bandako klarinete ikasleen kontzertua, hilaren 17an

Datorren ekainaren 17an, arratsaldeko 19:00etatik Aurrera, Felix García musika akademiako eta San Roque musika taldeko klarinete ikasleek dokto kontzertua eskainiko diete LHUIra hurbiltzen diren guztien gozamenarako. Ikasleek, musika klasikoko, herrikoieko, soinu bandetako eta pop rock abestietako piezak joko dituzte. Audio musika bandak honako hau adierazi nahi die musika instrumenturen bat jo edo musika kontserbatoriorako prestatu nahi duten guztiei: "Felix García" musika akademiak 2012-2013 ikasturterako matrikulazio epea zabalik du dagoeneko. Informazio gehiagorako honako telefonoetan: 679240745 eta 685738237



Euskarak ezer gutxi eskaintzen duela dioteneke jai dute gure udalerrian!!!! Zortzi izango dira ekainaren lehen hamabostaldirako euskaren inguruan eta gure hizkuntzari ekiteko martxan jarritako ekimenak... eta zein baino zein erakarriagoak gainera! Besteak beste, nekazaritza jasngarriari buruzko hitzaldia, erroskilak egiteko tailerrak, Anboto mendirako txagoa, sagarodtegitako irteera edo Bastidan egingo den Araba euskarazko autobus zerbitzua... gehiagorik behar ahal duzue??? Horratx ba, zuek eskatu, eta euskarak eskaini!

- Maiatzaren 30ean, asteazkena. 19:00etan, Lamuza Parkeko Etxe Nagusiko "Arraño" hitzaldi aretoan. Audioko euskararen egiazko erabilera neurtzeko azterlanaren emaitzak.
- Maiatzaren 31n, osteguna. 19:30etan, "Basalarrina" elkartean Nekazaritza jasngarriari buruzko hitzaldia. "Berbalagun" programaren barruan. Beraz, euskaraz izango da.
- Ekainaren 1ean, ostirala. 18:00etan, Gastronomía Museoan. 6 urtetik gorako umeentzako erroskilla egiten ikasteko tailerrak. Familia euskaldunentzat, "Gurasolagun" programaren barruan.
- Ekainaren 3an, igandea. 08:00etan. Irteera Alluitz eta Anboto mendietara. Audioko gazte (12-16 urte)

tzaldi aretoan. Audioko euskararen egiazko erabilera neurtzeko azterlanaren emaitzak.

- Ekainaren 3an, igandea. Irteera Burbona mendira (Altube-Gorbeia). "Berbalagun" programaren barruan.
- Ekainaren 9an, larunbata. Irteera sagardotegira. "Berbalagun" programaren barruan.
- Ekainaren 10ean, igandea. Irteera Euskal Eskola Publikoaren jaira (Zarautz), autobusez. Bonoak erosteko (udaletxean) azken eguna: ekainaren 7a, osteguna
- Ekainaren 17an, igandea. Irteera Arabako ikastolen "Araba euskaraz" jaira (Bastida), autobusez. Bonoak erosteko (udaletxean) azken eguna: ekainaren 14, osteguna

euskaldunentzat. "Oxigenoa Euskarari" programa.

- Ekainaren 3an, igandea. Irteera Burbona mendira (Altube-Gorbeia). "Berbalagun" programaren barruan.
- Ekainaren 9an, larunbata. Irteera sagardotegira. "Berbalagun" programaren barruan.
- Ekainaren 10ean, igandea. Irteera Euskal Eskola Publikoaren jaira (Zarautz), autobusez. Bonoak erosteko (udaletxean) azken eguna: ekainaren 7a, osteguna
- Ekainaren 17an, igandea. Irteera Arabako ikastolen "Araba euskaraz" jaira (Bastida), autobusez. Bonoak erosteko (udaletxean) azken eguna: ekainaren 14, osteguna

Laudio Ikastolak Araba Euskaraz jairako laguntzaile txandak antolatuko ditu

Ekainaren 17an Bastidan "Barneratu, barreiatu" lelopean ospatu behar den Arabako Ikastolen jairako laguntzaile taldea jarri du martxan Audio Ikastolak. Gazteguneko txosna, segurtasuna eta garbiketa atalen goizeko txanda, 09:30etik 14:30era, kudeatuko dute audioarrek. Ikastolako idazkari-tzan, 94 672 67 37 telefonoan eta eke@audioikastola posta elektronikoen bidez izena eman daiteke dagoeneko laguntzaile txanda honetan parte hartzeko. Audioko udalak bere aldetik jai-



rako autobusak antolatuko ditu, ekainaren 14a bitartean izango dira salgai udaletxean. 4. aldiz antolatuko du Bastida Ikastolak Araba Euskaraz jai.

Jaiaren xehetasun guztiak www.arabaeuskaraz.net web gunean kontsulta daitezke. Aurrerakin modura, Nahixan, Gatibu, Bizardunak, Ze esateki!, Jonhy & Josph eta Oihan Vegaren emanaldiak iragarri dira programan eta txikienei begira, Irrien Lagunak txokoa, lipdub baten grabaketa. Bertan dantzatzeko den ko-reografia, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan "Eskuetan" kantarekin lotutakoa, www.laudioikastola.net web gunean bistara daiteke.

Musika eskolako jaiak eta audioar dj-een sesioek euren txokoa izango dute Drumgorri aretoan

Drumgorri aretoak rocketik hara tago musika eskaintzarik badela erakutsi nahi du eta horrexegatik "musika mokadu bereziak" eskainiko dizkie Gardeako tren geltokitik hurbil kokatutako aretora



hurbiltzen direnei: Bata musika eskolako jaiak izango da, barbakoa eta guzti, eta bigarrena, ekainaren erdi aldera, audioar dj-ek eskainitako musika sesioa:

-Ekainaren 1ean, Ostirala 23:00etan. Dohainik ON D ROCKS (Bilbo)

-Ekainaren 2an, Larunbata 23:00etan. Sarrera 5€ "ROCK GAUA" DIENTES DE LUNA + KUENTA ATRAS + MEMORIA DE PEZ + Dj Tematico Rock

-Ekainaren 8an, Ostirala 23:00etan. Dohainik LYRIKAN (Laudio)

-Ekainaren 9an, Larunbata 23:00etan. Dohainik NUKORE (Gasteiz) + DON NADIES (Laudio-Gasteiz-Lekeitio)

-Ekainaren 15ean, Ostirala. Do-



hainik DRUMGORRI MUSIKA ES-KOLAKO FESTA

-21:00 - BARBACOA eta JAM SESSION

- **Ekainaren 16an,** Larunbata 23:00etan. Dohainik Dj TESO (Laudio) + Dj JOSH-E (Laudio)

Nuria eta Raquel dantza estudioko emanaldia hilaren 17an Euskalduna jauregiko auditorioan

Aurrekoetan bezala, Audioko Nuria eta Raquel dantza estudioak ikasturte bukaerako jaialdi tradizionala egingo du Bilboko Euskaldunan.

Hitzorduarekin bat egin nahi duten guztiek leku Gabe gera ez dai-

tezen eta ekainaren 17an arratsaldeko 19:30etatik aurrera 210 dantzari gazteek antolatutako dantza emanaldia behar bezala ikus dezaten, antolatzaileek jaialdia Euskalduna jauregiko auditoriora pasatzea erabaki dute.

Oraindik ere sarrerarik ez baduzu, etzazu denbora gehiagorik galdu eta eskuratu honako edozein puntutan: Jauregiko leihatiletan, www.euskalduna.net web gunean, BBKko multizerbitzu kutxetan edo 944 310 310 telefonoan.

Burgoserako txangoa Afanekin hilaren 16an

Datorren ekainaren 16an Afan elkarteak Burgoserako txangoa antolatuko du, besteak beste Huelgaseko monasterioa eta bazkari goxo baten ostean hiriko gune historikoa ezagutzeko asmoz. Irteera goizeko 9:00etan izango da eta autobusa 21:00ak aldera itzuliko da institutu aurreko geltokira. Prezioa 35 euro. Informazio gehiagorako edo eta izena emateko 654121946ra deitu.



Irabazi asmorik ez duten elkarteek gizarte gaietako ekintzak finantza dezatenerako eskaerak aurkezteko epea zabalik

Laudioko Udalak, gizarte gaietan euren ekimenak garatzen dituzten, eta irabazi asmorik gabeko elkarteek zuzendutako 2012ko diru laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak onartu berri ditu. Diru laguntza hauek 34.000 eurotako zenbatekoa aurreikusten dute. Ekintzak finantzatzeko diru laguntzak eskuratzeko eskariak Laudioko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, behar bezala erregistratu ahal izateko. Egitasmoak aurkezteko epea, gutxi gora behera ekainaren 20^a baino lehen aurkeztu beharko dira, orduan beteko baitira, Arabako Herrialde Historikoen Agiri Ofizialean deialdiaren iragarkia agertu zenetik 30 egun natural. Aurkeztu beharreko dokumentazioa oinarrietan eskatutako hori izan beharko da. Gaiaren inguruko informazio gehiago eskuratzeko deitu 944034840.

Dementzien alderdi legalei buruzko hitzaldia ekainaren 14an Kultura Etxean

Alzheimerraz edo bestelako dementziez jotako pertsonen senideen Arabako elkarteak dementzien inguruko alderdi legalei buruzko hitzaldia eskainiko du ekainaren 14an, osteguna, Kultura Etxeko lehenengo aretoan (sarrera euskaltzaitik) arratsaldeko 16:45etatik aurrera. Bertako txosten emaille Gotzone Astiasaran de Miguel abokatua izango da. Hitzorduarekin bat egin eta euren senideak artatzeko laguntza behar dutenek jar bitez harremanetan elkartearekin hurrengo telefonoan: 945246004. Sarrera libre eta doakoa.

Bat egizu patinen hirugarren ibilbidearekin

Ekainaren 3an, igandea, patina-jea bultzatzeko hirugarren patinen gaineko ibilbidea egingo da Laudion. 11:30etan Aldaiko plazatik abiatuko den marxa (txikien ibilbidea 11:00etan aterako da) kirolzale eta patinetan ibiltzea atsegin du-

ten guztiak erakarri nahi ditu. Hitzordu bukatutakoan antolatzailerak patinen gaineko dantzak eta patin poteoa antolatuko dute. Bertan parte hartu nahi duten guztiek 2 euro (ibilbidea ospatu baino lehenagoko egunetan izena ematen dutenentzako) sartu be-

harko dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0045 27 0451137836 kontu korrantearen euren izen abizenak bertan utzita; edo bestela, proba egiten den egun berean, 5 euro ordaindu Aldaiko plazan. Bertan parte hartzeko kasko eta babesgarriak erabiltzea ezinbestekoa da.

Entzuteari buruzko gakoien mintegia ekainaren 6an eta 16an

Pertsona bakoitzak modu eraginkorrean entzuteko duen gaitasunak hobetu eta entrenatzeko beharrezkoak diren gakoak eskaintzeko asmoz, oraindik zehazteke dagoen gure udalerriko areto baten mintegia antolatuko da ekai-

naren 6an (17:00etatik 20:00etara) eta 16an (10:00etatik 13:00etara). Mintegiko edukiak honako hauek izango dira: komunikazioa eta bere mugak, presentzia; entzutearen lehen urratsa, entzutearen mailak, galdera na-

barienak eta bizitza pertsonal eta profesionalerako entzutearen aplikazio praktikoak. Informazio gehiagorako edo izena emateko: desarrollo.laudio@gmail.com edo 649 221 232 telefonoa.

Berdintasunerako arloak gazteentzako tupper sex tailerra antolatuko du ekainaren 21ean, osteguna

Sexologo talde batek zuzendutako eta Kultura Etxean egingo den tailer dinamiko eta partehartzaile baten bitartez, izena ematen duten pertsonak, sexualitatearen magia joko eta jostailuen bitartez

ezagutzeko aukera izango dute. Bi talde egingo dira: Bata 16-21 urte bitartekoentzat eta bigarrena 22 urtetik 30erakoa. -Lehen taldea 16:30etatik 18:30etara

-Bigarren taldea 19:00etatik 21:00etara Informazio gehiagorako eta izena emateko Berdintasun arloa: 944034850

2012ko Osasunfestak tabakoari aurre egiteko aldarri ludikoa egingo du

Beste urte batez, Laudioko Udaleko Drogomenpeketasunaren aurkako zerbitzuak Osasun festa antolatuko du era ludiko eta jostailuaren bitartez ezetz esateko. Hitzordua ekainaren 16an izango da Herriko plazan eta besteak beste honako hauek izango dira:

11:00etatik 14:00etara TTR musika-antzerki taldearen eskutiko haurrentzako jaia eta globoflexia ikuskizuna. 12:00etan 2012ko Osasunfestako eskola arteko lehiaketako sari banaketa egingo da. Goizean zehar, festan bertan marraztu eta egindako irudiak

izango dituzten txapa eta postalak oparituko dira, kerik gabeko eta aire garbiaren aldeko konpromisoarekin bat egiten duten guztiei. Drogomenpeketasunean adituak diren zenbait pertsona, droga legalei aurre egiteko modu egokienak azalduko dituzte.

Aiarako Ur Partzuergoak 83.000 € inbertitu ditu, zortzi kontzejutako hornidura-azpiegituretan eraberritze-lanak egiteko

Kontzejuei ematen zaien zerbitzua bermatzearen, Partzuergoak hainbat eraberritze-lan egin ditu 8 kontzejutako bideraketa-sareko instalazioen azpiegituretan. Obretarako inbertsioa, azkenean, 83.000 eurotik gorakoa izan da. Kopuru horretatik % 50 Arabako Foru Aldundiak finantzatu du, Araba Uraren Agentziaren bidez. Aurten Lekamañako (Amurrio) kontzejua Ur Partzuergoan sartu delarik, dagoeneko 8 dira Kantauriko Urkideztaren kide diren kontzejuek (Arespalditza, Artomaña, Izoria, Larrinbe, Lekamaña, Luiaondol, Olabazar eta Zuhatza),

hau da, Aiaraiko Kuadrillako kontzejutako biztanleentatik % 60 guztira.



Euskal merkataritzari buruzko XIV jardunaldiak eta merkataritzari buruzko tailerrak

Laudioko Udaleko Garapen agentziak, Euskal merkataritzaren XIV jardunaldiak direla eta, batzarra egingo da ekainaren 5ean Bilboko Euskalduna jauregian. Horrez gain, Laudion eta "Erronka berriak, aukera berriak" lelopean formakuntza hiru tailer martxan jarriko dira.

Tailerrek, jarduera ekonomikoaren lehiakortasuna hobetze aldera ezagutu beharreko tendentziak, teknikak eta esperientziak eskainiko dituzte.

• **Maiatzak 30** 14:30etatik 16:30etara: "Kontsumitzaile ereduak" Udaletxeko balio anizdun

aretoan
• **Ekainak 6** 14:30etatik 16:30etara: Zer egin dezaket nire bezeroaren mugikorarekin? Apil-llen egoitzan

• **Ekainak 12**, 14:30etatik 16:30etara: "Gerrilla marketinga. La kostu Gabe saltzek ideiak eta teknikak" Apil-llen egoitzan.

Ekintzaileen Astea

Ekintzaileen astea dela eta, Laudioko Udaleko Garapen agentziak LHUIko ikasleei bideratutako jardunaldia antolatuko du maia-

tzaren 31n. Jardunaldia, "nire enpresa proiektua garatzen. Eman beharreko pausuak" lelopean jardunaldiak Arabako Merkatarit-

tza eta Industria Ganbarako Enpresen sorrerako saileko ardurdun batek emango ditu.

Gatazkei buruzko hitzaldia hilaren 6an Kultura Etxean

Solatiarrek, Avillo eta Jakaranda elkarteekin batera, familia gatazkei eta hauei buruzko irtenbideei buruzko hitzaldia eskainiko du ekainaren 6an arratsaldeko 16:30etatik aurrera Kultura Etxean. txoten emalea Coral G. de las Heras izango da. Sarrera libre eta doakoa.

Horrez gain oraindik ere ekainaren 14an egingo den frantziar Pirinioetarako txangoan parte hartzeko plazak libre daudela jakinarazi nahi da. Prezioa 19 euro. Izen emateak Euskadiko kutxan ekainaren 7^a baino lehen.

Santa Luzia abesbatza 2012ko San Roke jaietako pregoilari



Aurtengo San Roke jaietako pregoilari bikaina izango dute, Santa Luzia abesbatzak egin behar hori betetzeko agindua jaso ostean. Abesbatza osatzen duten kideentzako ohore bat eta egindako lan guztia aintzat hartzen duen esker oneko erabakia da hau, batez ere aurtun 40 urte betetzen dituztela jakinda. Zorionak!

Udalak OHZ eta JEZren epeko ordaintzaren lehen kuota kobratzeari ekingo dio

2012ko Herri edo nekazal izaerako Ogasun Higezinen gaineko eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergak epeko ordaintzea eskatu zutenekin jakin bezate ekainaren lehen hamabostaldian, zerga horien ordaintza existitzen diren helbideratutako banku kuoten bitartez egingo direla.

EPA Zentrarako matrikula epea zabalik

Laudioko EPA ikastetxean (helduentzako ikastetxe publikoa) 2012/13 ikasturteko matrikula epea zabalik dago ekainaren bigarren hamabostaldian. Eskaintza honakoa da: Oinarriko informatika, arte, argazkilaritza digitala, irakurketa eta ulermena, atzerritarrentzako gaztelania, ingelesa, euskara, memoria tailerra, DBH-ko ikasketen titulua. Informazioa eta matrikula: Laudioko EPA ikastetxean, Latorro 8, tfnoa: 946721734

Apdema elkarte aisialdirako begirale bila

Begirale gisa, izena ematen duten kideei oporaisialdia modu dibertigarrian erabil dezatenarako orientazioa ematea baldin bada eta autonomia pertsonala eta bestenganako harremanak sustatzeko jarduerak bultzatu nahi baldin badituzu, jakizu Apdema begirale bila dabilela, pertsona solidario eta konprometituak, beti ere. 10-12 eguneko kontratua eskainiko du elkarteak. Apdemako udako ekintzei edo ekimen honi buruzko informazio gehiago behar bazenute, deitu 945 144633 zenbakira eta zehaztasun gehiagoreki informatuko zaitugu APDEMA-ko udako ekintzei buruz.

2012ko San Roke jaietako kartel iragarlearen aukeratzea

Nire ustez, kategoria bakoitzeko lan irabazleak honako zenbaki hauek izan beharko ziren:

Jaietako kartela helduen kategoria:

Jaietako kartela haurren kategoria:

Boto emalearen harremanetarako telefono zbkia:

OHARRA: Botoa emateko kupoiak, saritutakoak izan ezik, zozketa bukatu eta berehala apurtuko dira -boto zenbaketa bukatutakoan-



2012ko SAN ROKE JAIETAKO KARTELA HAUTA EZAZU

Ekainaren 1etik 9ra, audioarrak San Rokeren omenezko jaiak iragarriko dituen kartela aukera dezakegu. Aurrietaz hautatutako kartelak, Kultura Etxean eta www.laudiokoudala.net web gunean ikusgai izango dira. Aukeraketa egiteko bi modu daude:
1. Erantsitako kupoiak bete eta Kultura Etxean utzi

2. www.laudiokoudala.net web gunean agertzen den loturan klikatu eta helbide elektronikoen bitartez botoa eman... modu erraz honen bidez, guztiok ere aurtengo San Roke jaietarako kartela hautatuko dugu... Parte hartu!!
Botoa ematen duten guztien artean hauek zozketatuko dira:

- Dekorazio landare bat (Bautista Altzari eta Dekorazioak eskainia).
- Bi pertsonentzako bono-relax-gastronomikoa (Aisia hoteleko, Urduñako bainuetxe-hotelak eskainia).
- Aiarako txakoliari buruzko 5 liburu (Laudioko Udalak eskainia).

2012ko SANTA LUZIA eta SAN ANTONIO

Santa Luzian kokatutako Ermuko amaren ermitako inguruak jendez gainezka izango dira ekainaren 3an eta 13an Santa Luziaren errepikapena eta San Antonio egunak direla eta. Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak bertaratzeko aukera ere izan dezaten, Laudioko Udalak autobus zerbitzua antolatuko du. Hona hemen bi erromerietako egitarauak eta autobus zerbitzuen inguruko informazioa:

Ekainak 3 igandea Santa Luziaren errepikapena
11,00 h. kalejira Ekin Joleak-en eskutik
11,30 h. Santa Luzia abesbatzak abestutako meza
Jarraian Santa Luzia abesbatzaren emanaldia
12,00 h. Erromeria Lotso taldearekin
16,00 h. Teatro traperero del Rioren eskutik "Las Pantomimas de Kutxo", haurrentzako ikuskizuna
19,00 h. Aiarako trikitixa taldearekin kalejira (Laudion)

Eguaztena, ekainak 13. San Antonio
11,30 h. meza santua San Antonio ermitan
19,00 h. kalejira Lankaietako lagunak taldearekin (Laudion)

Autobus zerbitzua (14 plazako mikrobuz) Aldaiko plazako parkingaren albotik Ekainak 3 10,00etatik 14,00etara eta 15,00etatik 18,00etara.
Ekainak 13 10,30etatik 12,30etara

Ellakuriko estali gabeko igerilekurako udako denboraldia ekainaren 23an hasiko da

Hori dela eta, kirol instalakuntza hauetaz gozatzen segü dezazuen, zuek ere denboraldiko paseak eskuratu ditzakezue, Lamuzako Granja kiroldegian eskaera orria betez. Eta zalantzarik eza izateko,

horratx denboraldirako egoilarek ordaindu beharreko prezio taula. Informazio gehiago beharko bazenute, www.laudiokoudala.net web gunean, denboraldi honi buruzko zehaztapen guztiak jasoko

ditu, bai pase eta bai eguneko -jai egun edo lan egun- salneurriak zeintzuk diren jakin dezazuen. Informazio gehiagorako jo arduraga be Lamuzako Granja kiroldegira edo deitu 94 403 4950.

ALDI BATERAKO BAIMENA	Eka/23 - Ira/9	Uzt/23 - Ira/9	Abu/20 - Ira/9
Familiak 14 urte arteko semealabekin	37,40 € - 46,75€	24,95 € - 31,20€	12,45 € - 15,55€
18 urtetik gorakoak	27,85 € - 34,80€	18,55 € - 23,20€	9,30 € - 11,65€
14urtetik 17ra	18,35 € - 22,95€	12,25 € - 15,30€	6,10 € - 7,65€
5 urtetik 13ra	10,90 € - 13,65€	7,25 € - 9,10€	3,65 € - 4,55€

* Erroldatugabeak

EGUNEROKO SARRERA	Lanegunak	Jaiegunak
18 urtetik gorakoak	3,00 €	3,90 €
14urtetik 17ra	1,50 €	2,50 €
5 urtetik 13ra	1,00 €	1,50 €
5 urte baino gutxiagoak	Doan	Doan

ORDAINKETAK:
Kiroldegian bertan, kreditu txartelaren bidez, edo
Caja Vital Kutxan (8:30-10:30), kontua: 2097 0178 17 0015334997
Caja Laboral Euskadiko Kutxan, kontua: 3035 0045 21 0450037009.